

Ongi etorriak dira autokarabanak Sagardoaren Lurraldean



Autokarabana sagardian.

Erraztasunak eta jarduera bereziak eskainiko dizkiete autokarabanaz eta furgonetaz bidaiatzen dutenei

Lunes, 27 agosto 2018, 14:10



Astigarraga, Hernani eta Usurbil artean kokatuta dagoen Sagardoaren Lurraldeak Euskal Herrira autokarabanaz edo furgonetaz iristen diren bidaiariei zuzendutako informazio kanpaina abiatu du, «etxea gainean» daramatela euskal sagardoaren kulturen murgildu nahi dutenei xehetasun praktiko ugari eskainiz. Ohar baten bidez jakinarazi dutenez, aparkaleku, piknik-gune, sagardotegi eta esperientzia turistiko ezberdinen informazioa jarri dute gurpil gainean bidaiatzen dutenen eskura.

Modu honetan, Sagardoaren Lurraldeak erraztasunak eskaini nahi dizkie, bertan eskaintzen dituzten esperientziak bizi ahal izateko. Horien artean, Sagardoetxea Museora bisita gidatua eta sagardotegiko ohiko otordua batzen dituen da bere webgunean eskaintzen

dituztenen artean arrakastatsuen.

Bidaiarien eskura jarri dituzten xehetasunen artean, autokarabana eta furgonetentzako aparkaleku egokiak daude, Sagardoaren Lurraltera bisita egin ahal izatea errazteko, nola Astigarraga, Usurbil eta Hernaniko inguruetan hala Donostian. Gainera, aldezturik erreserba egin, **gisaren honetako ibilgailuentzako aparkaleku egokiak dituen sagardotegien inguruko informazioa** ere eskaintzen du.

Garraibide horietan iristen diren bidaiariek euskal sagardoaren kulturaren murgiltzeko aukera egokiena hauta dezakete, autokarabana hiriburuan utzi ondoren garraio publikoan nahiz bizikletaz gerturatuz, baita beren ibilgailu propioan ere.

Ekimen honekin, Sagardoaren Lurralterak «'camper' delako ibilgailuetan iristen diren bidaiariak erakarri nahi ditu, gero eta gehiago baitira mota honetako bisitariak. Gainera, bidaiari hauek Sagardoaren Lurralterak eskaintzen dituen gisaren esperientziak bizitzeko ohitura dute».

Ibilgailua ordu batzutan aparkatuta utzi nahi dutenentzat, Sagardoaren Lurralterak Sagardoetxea **Museora bizikletaz gerturatzeko aukera** ere eskaintzen du, Donostiako Alde Zaharren kokatua dagoen Go Local enpresarekin elkarlanean.

Sagarbike esperientziaren bitartez, Gipuzkoako hiriburuan bizikleta alokatu daiteke eta Sagardoetxea Museora gerturatu, 20 kilometro inguruko joan etorriko itzulia eginez Urumea ibaiertzeari barrena. Esperientzia museoko bisita gidatuarekin eta sagardo, pintxo eta sagarraren beste eratorri batzuen dastaketarekin osatzen da.

TEMAS **Euskera**



Recibe nuestras newsletters en tu email

Apúntate

Lo + leído

El Diario Vasco

Gipuzkoa

[Top](#)

[50](#)

1 Ricky Martin, de vacaciones en San Sebastián

2 La familia de la mujer de Idiazabal fallecida en México inicia el trámite de repatriación

3 El tiempo pasará de un lunes veraniego a un miércoles otoñal con diez grados menos

Una joven de Idiazabal muere en México en otro accidente de moto